

aurreko orrialdetik dator

zituen. Euskara alde batera utzi zuen, eta, ondorioz, berak hezi zituen gazte horiengan euskarak ez zuen izan aparteko lekurik. Gero, berriro sektore euskaltzaleak gizartean indarra hartuz joan ziren heinean, jarrera aldaketa nabarmena gertatu zen beregan. Berak idatzi zuen azken idatzia ere euskaraz egin zuen».

Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa sortu eta garatzen hasi zen gizartean euskararen gaia lurperatua zegoen. Kooperatiben hasierako urte haietan, langileak oro har euskaldunak baziren ere, euskara harreman informalean bakarrik erabiltzeko aukera zegoen. Idatzizko mailan nahiz bulegoetako harremanak gaztelaniazkoak izaten ziren. Baziren, hala ere, euskaltzale sutsuak. Batzar orokorretan, adibidez, euskara aldarrikatzen zuten kooperatibistak. Tailerrean, laneko hitz teknikoak euskaratzen zituztenak ere bai. «Hasieran, beraz, pertsona bakanen ekimenak izan ziren. Ondoren, 70eko hamarkadako azken urteetan heldu zen euskarazko lehen garaia», azaldu du Unanuek. Euskararen aldeko giro soziala 1975 urte inguruan biziberritu zen. Urte horretan zabaldu zen alfabetatze eta euskalduntze mugimendua Euskal Herri osoan. 1977an, esaterako, 29.000 ikasle inguru aritu ziren gauetan euskara ikasten.

Gau eskolak eta klaseak kooperatibetan

Arrasaten, 1960ko hamarkadarako baziren ezkutuka euskara ikasten aritu zirenak, frantziskotarren eskutik. Ondoren, 1968 urtean, Danok elkar-tearen sorrerarekin batera, euskara eskolak talde horren baitan antolatzen hasi ziren. Orduan, herritar multzo bat irakasle bilakatu eta euskara ikasi nahi zutenei eskolak eskaintzen hasi ziren beren borondatez. 1976-1977 urtean Leintz bailaran 1.090 ikasle aritu ziren gau eskolan. «Gutxira, irakasle talde batzuen artean ideia bat sortu zen. Herrian eskaintzen ziren euskara eskola haiek kooperatibetan eskaintzea, alegia. 1976an, eskaera ezberdinak bideratu ostean,

**LIBURUAREN DATUAK:**

Titulua: Kooperatibak eta euskara.

Egileak: Amagoia Unanue eta Nahia Intxausti.

Argitaletxea: Lanki ikertegia eta Emun Kooperatiba Elkartea.

Orri kopurua: 151.

ULARCO taldean hasi zen lehen euskara plana martxan. Hurrengo ikasturterako 600 lagun inguru ari ziren euskara ikasten. 104 irakaslek, tartean kooperatibetako langile eta ikastoletako irakasleek, beren burua formatu eta ondoren besteei hizkuntza erakusteari ekin zioten.


1980ko hamarkadan krisiak atea jo zuen, ordea, kooperatiba taldean ere. Ondorioz, errentagarritasun ekonomikorik ez zuten ekintzak desagertu egin ziren. Horrekin batera, euskara eskoletako langile kopurua izugarri jaitsi zen. 1978an 549 ikasle ziren; 1983 urtean, ordea, 63 besterik ez ziren. Maisuak 54 izatetik 8 izatera igaro ziren. Orduz geroztik, euskara eskolek beste erritmo eta ezaugarri batzuk izan zituzten. AEK eta HABEren eskutik hartzen ziren eskolak eta taldeak ere askoz txikiagoak izan ziren. Euskara lan munduan sartzeko ahaleginek aurrera egin zuten, ordea. Horren adibide ditugu Arrasate Eus-

kaldun Dezagun euskara elkartearen baitan sortutako Euskalanen sorrera, 1986an.

1990eko hamarkadatik aurrera lan-tegietan euskararen erabilera areagotzeko proiektu berri baten lehen has-tapenak zehaztu ziren. «Kooperatibismoaren lehen garai horiekin alderatuz, euskara plangintzekin aldaketa nabarmena jazo da. Lehen garai horietan, euskararen ezagutza oinarritzen zen lana. Euskara eskolak hartu eta euskaraz ikasi. Baina, plangintza horien helburua da jada, erabil-leran sakontzea eta euskarak komuni-kazio mailan duen presentzia handi-tzea eta hobetzea. Horretarako, plan batzuk diseinatzen dira, enpresaren egoera kontuan hartuz. Eta gero eba-luazio bat egiten da».

Balorazio orokor bat eginez, koope-ratibismoaren eta euskararen artean egon den harremana beste lantegie-tan egon dena baino «nabarmena-go» dela deritzo Amagoia Unanuek: «Beti egon da jende bat euskararen alde diru laguntzak bideratzeko prest, edo euskara eskolen mugimendu hori, edo gaur egungo plangintzak... Esaterako, euskara plangintzak mar-txan diren enpresen %55 kooperati-bak dira. Beti egon da halako harre-man bat kooperatiben eta euskararen artean: batzuetan gehiago eta beste-tan gutxiago. Beste enpresa batzuekin alderatuz, ordea, jarri dira garabide batzuk».

Etorkizunera begira kooperatibis-moaren munduak euskarari ekarpe-nak egin diezazkiokeela uste du Una-nuek, eta baita euskarak kooperatibis-moari ere: «MCC —Arrasateko Kooperatiba taldea— erreferente bat da Euskal Herrian enpresa mailan eta euskaren munduak egin behar duen ibilbide horretan, erreferente bilaka daiteke gainontzeko enpresentzat. Bestalde, kooperatibismoak badauka proiektu etiko bat, eta proiektu etiko horren osagai berri moduan, euskarak balio dezake proiektu etiko hori bizi-berritzeko eta indartzeko. Beraz, bata bestearen osagarri izan daitezke: ko-operatibismoak euskara lagun dezake lan munduan txerta dadin, eta euska-rak kooperatibismoari lagun diezai-o-ke bere egitasmo etikoa osatzen».

Euskara planak 2002 urtean**GIPUZKOA****Debabarrena:**

Danobat Koop. E. (Elgoibar)
Ideko Centro Tecnológico A.I.E. (Elgoibar)
Kondia S.A. (Elgoibar)

Debagoiena:

Balzars-Elay S.A. (Antzuola)
Elay S.A. (Antzuola)
Elay industrial S.A. (Antzuola)
Matz-Erreka Koop. E. (Antzuola)
Trokelay S.A. (Antzuola)
Goizper Koop. E. (Antzuola)
Seytra S.A. (Antzuola)
Copreci Koop. E. (Aretxabaleta)
Fagor Sistemas Koop. E. (Aretxabaleta)
Alecop (Arrasate)
JMA (A. Altuna) (Arrasate)
Fagor Arrasate Koop. E. (Arrasate)
Fagor Automation Koop. E. (Arrasate)
Fagor Etxetresna Elektrokoop. E. (Arrasate)
Fagor Elektronika Koop. E. (Arrasate)
Fagor Taldea Koop. E. (Arrasate)
Ikerlan Koop. E. (Arrasate)
LKS Ingenieria Koop. E. (Arrasate)
MCC Koop. E. (Arrasate)
Soraluce Koop. E. (Bergara)
Fagor Ederlan Koop. E. (Eskoriatza)
Fagor industrial Koop. E. (Oñati)

Donostialdea:

Mondragon Sistemas de Informacion Koop. E. (Andoain).
Aquadonosti, S.L. (Donostia)
Aspace (Donostia)
Goroldi S.L. (Donostia)
Gureak S.A. (Donostia)
Matia Fundazioa (Donostia)
Euskotren (Donostia)
Orona Koop. E. (Hernani)

Goierrri:

CAF S.A. (Beasain)
Ampo Koop. E. (Idiazabal)
Irizar Koop. E. (Ormaiztegui)

Tolosa:

Celulo
Panel
SAM

Urola:

Danoni

BIZKAIA:**Arratia:**

Batz K

Bilbo:

Arthur
Bizkaia
(Bilbo)
Labein
ONCE
Forum
Arlan S
Matric
ITP, S.

Durango:

Estam
Eroski

Busturia:

Maier
Azti Fu

Lea-Araba:

Eika K
LEalde

ARABA:**Arabak:**

Celaya
S.A. (G

Gorbeia:

Eskoop

1977an Lan Kide Aurrezkiak egindako kanpaina honek hainbat hauts harrotu zituen.